

ICOM^{ESP} D/SS'22

MUSEOLOGIAREN III. TOPAKETA

KONTAKIZUN BERRIAK MUSEOETAN

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
IRAILAK 29-30, URRIAK 1

ICOM consejo
internacional
de museos
España

STM
San Telmo Museoa

 DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

 donostia
kultura

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ETORKIZUNA
ORAIN
Es futuro



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

AURKEZPENA

Duela hamarkada batzuetatik hona, zalantzan jartzen hasita daude modernitate ideiarene oinarriak. Modernitatea erroak iraganean dituen gizarte eta kultura mailako prozesua denez, kontzeptualki behin eta berriz berrikusi da eta berrikusten ari da, garrantzi handiko ikuspuntu intelektual batetik. Areago, aldaezinak ziruditen ideiak, hala nola aurrerapena, berraztertu eta zalantzan jartzen dira gaur egun, batzuetan, ingurunea hainbat ikuspuntuetatik ezagutzeko abaguneen bila.

Museoek heldu diote erronka horri, eta dagoeneko asko dira itxurazko dogmatismoa –askotan kritikaturako jarrera teorikoek inposaturakoa– gainditzeko diskurtso alternatiboak bilatu dituzten erakundeen esperientziak. Berrikuspen horiek, gainera, berriz ere zalantzan jartzen dira, lorpenak goraipatzeko, baina baita gehiegikeriak zigortzeko ere.

Museo askok ekin diote beren funts eta bildumak berriz aztertzeko prozesu sakonari. Aurkezpen berriak eskaintzea da helburua, ahal den neurrian, betiere meditatutako zorroztasunez, diskurtso “ofizial” eta/edo “hegemonikoak” atzean uzteko, kontatzeko eta interpretatzeko bide berriak bilatuz. Funtsean, museoak XX. mendearen amaieratik XXI. mendearen hasierara bitartean gizartean gertatutako aldaketa sendo eta iskanbilatsuak islatu baino ez du egiten. Museoak, batzuetan, lehenago isildutako ahotsen bozgorailu bihurtu daitezke, gaur egungo gizartearen errealtate eta arazoei ikusgarritasuna emanez, baina batez ere etorkizuneko erronkak ikusaraziz.

Gaur egun, museoek normaltasunez txertatzen dituzte gai jakin batzuk beren erakusketa proposamen eta jardueretan, bisitarien hausnarketa aktiboa sustatzeko asmoz: gaur egungo gizartearen eta etorkizuneko erronken irakurketa berriak; askotariko planteamenduak generoaren inguruan, bizitzaren arlo guztiei eragingo dien ezinbesteko berdintasuna aldarrikatuz; museoaren bizitzan parte hartzeko gonbidapena, normalean erakunde horietatik urrunduta dauden kolektiboei luzatzen zaiena; erakunde baten –museoaren– bidezktasuna, hainbatetan zalantzan jarri izan arren, gure gizartean beti presente dagoena.

Azken urte zail hauek agerian utzi dute museoek gizartearekiko konpromisoa hartzeko duten gaitasuna, baina baita eraldaketa prozesu etengabea dagoen eta itxaropenak zein beldurrak –erdibana– nahasten dituen etorkizunari aurre egin behar dion gizarteari pultsua hartzeko beharra ere. Espero dugu topaketa honek edo, hobeto esanda, birtopaketa honek, berretsiko duela museoaren gaitasuna, etorkizun hobia pentsatu eta proposatzeko.

Teresa Reyes Bellmunt
ICOM Espainiako presidentea

EGITARAUA

IRAILAK 29, OSTEguna

- 9:00 Inskripzioa**
- 9:30 Inaugurazio eta aurkezpena:**
Udalaren ordezkaria,
San Telmo Museoko zuzendaria,
ICOM Espainiako presidentea
- 10:00 Garai guztietako museo bat**
Manuel Fontán del Junco, Juan March Fundazioko
Museo eta Erakusketa zuzendaria eta Cuencako
Arte Abstraktuaren Museoko zuzendaria.
- 11:00 Kafea**
- 11:30 Ispilu ganbilak: museo ez metropolitarrak**
Gilberto Gonzalez, TEAko zuzendari artistikoa, Kanariak
- 12:30 250 urteko bizitza:**
Bide berri bat eraikitze "Master Plana"
Paulo Trincão, Coimbrako Unibertsitateko Zientzia
eta Historia Naturaleko Museoko Zuzendaria, Portugal
- 13:30 Goizeko saioaren amaiera**
- 15:30 Mahai-ingurua: Kontakizun berrien zergatiak**
Mahaiburua:
Xavier Roigé Ventura, Bartzelonako Unibertsitateko
Antropologia eta Museologia Irakaslea
Parte hartzaileak:
Koré Escobar, Gaztela eta Leongo Arte Garaikideko
Museoko (Musac) programazio alorreko arduraduna
Narrazioa, konpromisoa eta erantzukizuna
Marta Font, K6 Gestión Cultural-eko programazio
arduraduna
Migrazioak proiektua. Museo Zumalakarregi
María Victoria Antoñanzas, Bilboko Arte Ederren Museoko
HKES-ko arduraduna
Ikuspuntuak/Puntos de vista programa
- 17:45 Susana Soto, San Telmo Museoko zuzendaria.**
Proiektuaren aurkezpena eta museoaren bisita
gidatua
- 19:00 Eguneko saioen amaiera**

IRAILAK 30, OSTIRALA

- 9:00 Erakusketa iraunkorreko gai berriak**
Mabel Tapia, Madrilgo Sofia Erregina Zentro Museo
Nazionalako azpizuzendari artistikoa
- 10:00 L'ETNO, areto iraunkorretako kontakizun proposamenak**
Joan Seguí, Valentziako L'ETNO Etnologia Museoko
ikerketaren arloko arduraduna
- 11:00 Kafea**
- 11:30 Bizi-agertokiak. Kontakizun berriak genero-ikuspegiarekin
etxe museoetan**
Carme Bergés Saura, Cerverako (Lleida) Museo
Comarcals-eko zuzendaria
- 12:30 Dibertsitatearen balioa**
Fernando Sáez Lara, Madrilgo MNA, Antropologia
Museoko zuzendaria
- 13:30 Goizeko saioaren amaiera**
- 15:30 Mahai-ingurua: Kontakizun berrien nolakoa**
Mahaiburua:
Encarna Lago González, Lugoko Museo Sare
Probintzialeko kudeatzailea
Parte hartzaileak:
Lola Baena, Kordobako Arkeologia Museoko zuzendaria
Kontakizuna(k). Hautu planifikatu bat.
María José Torrecilla, La Encartada Museoa, Bizkaia
La Encartada genero ikuspegitik
Beatriz Herráez, Artium Museoko zuzendaria, Gasteiz
Zeru bat Hamaika bide erakusketa. Praktika artistikoak
Euskal Herrian 1977 eta 2002 bitartean
- 17:45-19:00**
Aldi baterako erakusketaren ikustaldi gidatua
"JORGE OTEIZA - EDUARDO CHILLIDA.
Dialogoa 50eko eta 60ko urteetan".
San Telmo Museoa.
(Ezinbestekoa izena ematea)
- 19:30 Itxiera-kopa San Telmo Museoan**
- 21:00 Amaiera**

TOPAKETAREN IDAZKARITZA

TISA CONGRESOS S.L.

 **KONTAKTUA:** encuentro@icom-ce.org

 **TELEFONOA:** 943 43 41 37

 **TELEFONO-ARRETARAKO ORDUAK:** 09:30-15:00

INSKRIPZIOA

Izen emateko, sakatu hemen

URRIAK 1, LARUNBATA KULTURA-IKUSTALDIA

1. AUKERA

- 9:30 Legazpiko Burdin Haranera eta Arantzazuko
Santutegira bisita**
- 14:00 Bazkaria Arantzazuko Santutegian**
- 15:30 Arantzazuko Santutegira bisita**
- 17:30 Donostiara itzuli**

2. AUKERA

- 9:30 Legazpiko Burdin Haranera bisita**
- 14:00 Donostiara itzuli**

LABURPENAK

Garai guztietako museo bat

Manuel Fontán del Junco

Esanahi zehatza alde batera utzita, museologiaren klasikoetako baten izenburu ospetsuak, Germain Bazin-en *Le temps des musées* (1969) izenburuak alegia, museoentzat denborak duen toki garrantzitsua ematen digu aditzera. Museoetan denbora zerbait funtsezkoa da, dela kontakizun berrietarako, dela objektu zaharretarako edo bien etorkizunerako. Hala ere, museoari buruzko hausnarketak, askotan, museoan iraganaz eta etorkizunaz arduratzeko joera erakusten du, batez ere, eta, beraz, orainaz ahazteko. Mintzaldi honek “garai guztietako museo batek” zer itxura izango lukeen iradokiko du, hots, une bakoitzean bere iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko artikulazio on bat lortuko duen museo batek.

Ispilu ganbilak: museo ez metropolitarrak

Gilberto González

Nolabait esan liteke museo guztiak elite baten zerbitzuan daudela, agerian edo ez hain agerian. Hala ez denean, talde pribilegiatu berri bat ezarri nahian huts egindako ahalegin bat bezala edo oraindik hori lortu ez duen ahalegin bat bezala ikus genezake. Horregatik, bilduma batera hurbiltzean, analisiak ez luke bilduma osatzen duten piezen trazabilitatea soilik izan behar, museoak etorkizunean izango duen ezagutzamota ulertzen saiatu behar luke. Iraganaren eraikuntzaren atzean edo oraina gure museoetan txertatzeko saiakeraren atzean, gehienetan etorkizuna baldintzatu nahi izaten dugu. Bildumak berrantolatzeke bi esperientziatan oinarrituta –Arte Ederren Udal Museoa eta TEA (Tenerife Espacio de las Artes)–, diskurtso ofizialek nola jardun duten ulertzen saiatzen gara, baina baita Kanarietako testuinguru jakin bateko gatazka kolektibo eta historikoez nola jardun duten ere. Hartara, itxuraz xaloak diren terminoek, hala nola paisaiak, trikontinentalitateak eta zubiak, azkenean edozein esanahi politiko lausotzen dute asepsia faltsu baten atzetik.

Esperientzia hau, Tenerifeko Santa Cruzeko Arte Ederren Udal Museoaren kasuan, “Etika nanoak” izenburupean egindako erakusketa batekin amaitzen da, azkenean, TEAn proposamen berri baten hasiera izan zena, “Europa, leku exotiko hori” izenburupean.

250 urteko bizitza: Bide berri bat eraikitzeke “Master Plana”

Paulo Renato Trincão

Coimbrako Unibertsitateak mendeetan zehar bizitako esperientzien emaitza diren objektu bilduma zabala du, eta horien zaindaria Zientzia eta Historia Naturaleko Museoa izan da azken 250 urteetan.

Bere ikerketa- eta irakaskuntza-jardueratik mota guztietako objektu ugari geratu dira, jada erabilera zuzenik ez zutenak eta, aukeraz edo ahanzturaz, guregana iritsi direnak.

Coimbrako Unibertsitateko bilduma zientifikoez 650.000 objektu inguru biltzen dituzte, lau kategoria nagusitan banatuta: Natur Historia, Etnografia, Tresna Zientifikoa eta Maketak; eta baita paperezko bi mila lan baino gehiago ere, liburu zaharrak, kartografia, panel pedagogikoak eta artxiboak barne.

Bilduma horien tamainaren eta aniztasunaren ondorioz, Coimbrako Unibertsitateak parekorik ez du Portugalen, ez eta Europan ere, eta hori faktore bereizgarri gisa aurkeztu eta bizi daiteke nazioartean, eta, bereziki, mundu lusofonoan.

Masterplanaren helburua da ondare hori guztia birpentsatzea, jatorriaren historiari eusteko moduan antolatzea eta, aldi berean, mota guztietako publikoarentzat erakargarri bihurtzea.

L'ETNO, areto iraunkorretako kontakizun proposamenak

*Joan
Seguí*

2020ko uztailean, L 'ETNOk (Museu Valencià d' Etnologia) Valentziako herri kultura tradizionalari eskainitako gela iraunkor berriak inauguratu zituen. Museoak gela hauetarako egindako proposamenak L 'ETNOk gordetzen duen (eta bera definitzen duen) ondare etnografikoko bildumen gaitasun diskurtsiboa sendotu nahi du, iraganean soilik ainguratuta ez dauden elkarrizketen sustatzaile bihurtzeko asmoz. Herri kultura, bere objektuak eta bere kontakizunak etengabeko eboluzioan dagoen materializat hartuz, L 'ETNOko lantaldeak, adibidez, XX. mendearen lehen erdiko gela bat edo denda bat erakustea proposatzen du, bai eta, irudikapen museografiko horretatik abiatuta, gure hirietako gentrifikazioaz edo on-line merkataritzaren etorrera kontsumitzeko (erosteko) moduak jasaten ari diren aldaketa handiez hitz egitea ere.

Bizi-agertokiak. Kontakizun berriak genero ikuspegiarekin etxe museoetan

*Carme
Bergés Saura*

Cerverako Duran i Sanpere etxea bertan bizi izandako gizonengandik abiatuta azaldu da, eta, aldiz, emakumeak, etxeko espazio horien benetako kudeatzaileak, isilik geratu dira. Herminia Grau i Aymà, bere ahalmen intelektual gorabehera, Agustí Duran senarraren itzalean geratu da. Berak bere nortasuna aldarrikatzen du, esleitutako rol sozialak alde batera utzita, eta XIX. mendeko emakumeen mimetismoarekin hausten du, espazio propioa betetzeko. Etxeak (orain etxe museoak) emakumeen historia (edo istorioak) eraikitzeak aukera ematen digu, eta haren azterketari heltzen diogu funtsezko kontzeptu batzuk abiapuntutzat hartuta, hala nola egunerokotasunaren museizazioa, mikrohistoriaren garrantzia, emakumeen korrespondentziaren erabilera eta artea gerra-makina gisa aldarrikatzea.

Dibertsitatearen balioa Antropologia Museo Nazionalaren berriztapen identitarioa bere 150. urteurrenean

*Fernando
Sáez Lara*

Sustrai eboluzionista duten Europako museo etnologiko zahar guztiek aurre egiten diote posizionamendu epistemologiko berriak, funtzio sozialak, identitateak eta legitimitateak aurkitzeko erronkari, museo nazional positibista etnozentrismoaren krisiaren ondoren. Milurteko-aldaketarekin, globalizazioarekin, populazioen eta identitateen mixtifikazioarekin, aniztasunarekin lotutako eskubideen aitortzarekin eta deskolonizazio prozesuak abiaraztearekin batera, premia hori ezin larriagoa bihurtu da. Berritu edo hil. MNA ez da salbuespena. 150. urteurrenaren ospakizunak (2025) aukera ematen du behin betiko urratsak emateko, hausnarketa aktiboaren lehen fasearen ondoren eta aurreko esparru kontzeptualarekiko apurketa mailakatuaren ondoren, eta objektu eta, batez ere, subjektu museologikoaren ikusmolde berri baten ondoren. Kultura-zikloek, bitartekaritza-programek, migratzen duten pertsonak, migratzen duten objektuak eta hiri-kulturek eta konpromiso-gutunak egituratu dute museo ireki eta parte-hartzailea bilakatzea, gizarte anitz baten kezkekin konprometitua. Orain, garrantzitsuen geratzen da: bere nortasunaren ezaugarriak ezagun eta iraunkorrenetara eramatea, hau da, haren izena eta irudi instituzionala, haren balioen eta bildumen inguruko diskurtso museologikoa. Gure kasuan, jakina, dibertsitatearenak dira balio horiek.